



TANGO KALERA ATERAKO DUTE

Agata elkarteko kideak Tolosako Berdura plazan ariko dira dantzatzen, etzi, 18:30etik 20:30era; ekitaldia irekia da >3

TOLOSALDEKO
ETA LEITZALDEKO

hitza



Osteguna
2009-09-24

VII.URTEA XXX.ZENBAKIA
ESKUALDEKO EGUNKARIA

WWW.TOLOSALDEKOHITZA.INFO

Lizarrarekin senidetuko da Ibarra 'Euskal Herria Egunean'

IBARRA Bi herrietako eragile ugari bultzatu dute ekimena; Ibarra bertan ospatuko dute senidetze eguna

HELBURUAK Euskal herritarrek direla aldarrikatzea eta bi probintzietako herrien senidetzea burutzea dira asmoak >7



Urte guztian elkarrekin ekintza ezberdinak burutuko dituzte; lehen, urriaren 10ean; irudian, atzoko aurkezpena. A. IMAZ

Etzi Euskal Jaia ospatuko dute egun osoan zehar, bi urteren ostean

IKAZTEGIETA Duela bi urte izandako harrera beroa ikusita, Udalak berriz ere antolatzea erabaki du; era askotariko postuak izango dira >4

Batzordea eratu dute Monteskuero etorkizuna diseinatze aldera

TOLOSA Ekintza Planaren lehen zirriborroa osatu dute auzotarrek, Berpiztu Egitasmoari esker >6

maizpide 09/10 kurtsoa

euskaltegia-barnetegia · lazkao
943 88 92 31 · lazkao@maizpide.com

Ordukako ikastaroak.
Euskara-planak
enpresa eta
erakundeentzat.

Barnetegian
hilabeteko ikastaroak.
Familia
euskaldunetan
egoteko aukera.

C-1 maila on-line.
Autoikaskuntza.
4. maila.

Larunbatetan
goi mailako
ikastaroak.



Bizitza hobetzen laguntzeko, barrea

Aisia » Atzo hasi ziren Sanatana Dharma eskolak antolatutako Kontzientzia globalari buruzko jardunaldiak. Atzoko saioan, Bharat Yogacharia barretera-peutak bizitzan zoriontsu izateko jarraitu beharreko bideak zeintzuk diren azaldu zuen. Izan ere, jardunaldi hauen helburua norberaren bizitza hobetzen lagun-

tzea, eta horretarako baliabideak eta teknikak ematea da. Jendeari euren alde positiboa ateratzen erakusten diete, barrualdea aldatzen lagunduz. Gaur berriz, tailer praktikoa izango da. Lehendabizikoa saioa 09:00etatik 10:30era izango da eta bigarrena, 17:00etatik 18:30era. E ZEIZA

Egurrezko jostailuekin ibiltzeko aukera izango da larunbatean

Aisia » Komertzio mahaiaik antolatutako ekimenean, Tombs Creatius tailerrekoak Tolosan izango dira egun osoz.

ERREDAKZIOA

Tolosako Komertzio foroak martxan jarritako ekimenaren baitan, beste emanaldi bat izan izango da larunbat honetan. Joan den larunbatean, Kanpanolue taldekoak izan ziren Triangulon, *Atxikistan* lana aurkezten, eta orainoan berriz, Tombs Creatiuskoak etorriko dira.

Zurezko jolas tresnak ekarriko dituzte Herrialde katalanetako artista hauek. Lehendabizikoa saioa 10:30etik 13:30era izango da, Plaza Berrian, eta bigarrena, 17:00etatik 20:00etara, San Frantzisko ibilto-kian.

Tombs Creatius egurrezko jolasak egiten dituen talde bat da. Lau urtetik gora daramatate adinguz-



Egurrezko jostailuekin ibiltzeko aukera izango dute haurrek. HITZA

tietako haurrentzat kale jokoak proposatzen. Jostailuak egurrezkoak dira, material naturala baita, guregandik gertu dagoena, eta aldi berean, naturarekiko oraka man-

tenduz, gauzak sortzea ahalbidetzen duena. Bestalde, kalea jolasteko toki bezala ikusten dute. «hau horretarako izan baita beti». «Betidanik, gizarteratzeko gunea eta jenedaren aisirako puntua izan baitan, nahiz eta ohitura hau galzten ari den» gaineratzen dute.

Tombs Creatiusen jokoek jatorri oso desberdinak dituzte. Hauek, mekanismo batetik sortzen dira, beste joko batetik, ideia berri batetik. Izan ere, jolas zahar-rrak berreraikitzen dituzte.

Emaitza txarra lortu du TAKE Aralar Kirolak taldeak lehen partidari

Saskibaloia » Usabalen, Zarautzen aurka neurtu ziren denboraldiko aurreneko jardunaldian; 10-54 galdu zuten.

ERREDAKZIOA

Emaitza txarrekin hasi dute denboraldia TAKE Aralar Kirolakekoek. Aurrendenboraldi gogor batean ostean denboraldiari hasiera emateko Zarautz izan zuten aurkari etxean.

Denborazko pasa da aurrendenboraldiko lehen entrenamendutik eta neskek gogo biziz zeunden lehen partida jokatzeko. Taldeak maila mantentzeko helburuarekin ekin dio denboraldiari eta horretarako garaipen batekin hastea egokia izango zen. Hala ere eguneroko lana oso garrantzitsua izango da etorkizun batean taldeak kalitate jauzia egin dezan.

Partidarako Lidiaren baja izan zen eta Aza entrenatzaileak ezin

izan zuen partidara joan. Ondorioz, Gonzi bigarren entrenatzaileak bakarrik aritu zen gidari lanean. Epailea ere baja garrantzitsua izan zen, ez zelako enteratu partidazuenik. Aipatu beharra dago Ioritz taldeko staf teknikoari gehitu zaiola. Honek, bere esperientzia taldeari transmititu nahi dio.

Lehen zatian tolosarrek defentsa gogorra baliatuz partidari mantentzea lortu zuten. Erreboteko lan izugarria eginaz ez zieten zarautzarrei erasoko bigarren aukerarik ematen. Atsedendiaren ondoren taldeak fisikoki une batean indarrak galdu zituen, maila jaitziz, eta aurkariak pixkanaka aldeak areagotu egin zituen amaierako 10-54era iritsi arte.

Hurrengo astean zeresan eta eztabaida ugari sortu duen Donostia Neskek taldearen aurka jokatuko dute TAKE Aralar Kirolakekoek. Donostiarraren entrenatzaileak ohar ugari hartu zituen Usabalgoko armailetatik urdinak gelditzeko asmotan.

Gaur Zine-Forumean 'Eloxio da distancia' filma ikusteko aukera

Kultura » Ohiko zine emanaldiez gain, gaur Zinemaldiko filmeetako bat ere ikusi ahal izango da, 'Ponyo' lan japoniarra.

ERREDAKZIOA

Zinea gustuko duenak astero bezala Leidorren du hitzordua gaur gauean. Zine-Forumaren eskutik, *Eloxio da distancia* filma ikusteko aukera izango da. Lehendabizikoa emanaldia 19:15ean izango da, eta bigarrena, 21:45ean.

Julio Llamazares eta Felipe Vega dira filmaren zuzendariak. Aurtengo maiatzean estreinatuz zen dokumentala, Espainiako aretoetan, eta orain Tolosan ere ikusi ahal izango da. Lau urtarokak irudikatzen dira bertan, edertasun plastiko indartsu batekin. Lana Lugon (Galizia) dago kokatua eta bertan ikus daitezke naturaren aldaketak, baina baita gizakien ere. Hau dena, xehetasun txikiak ere ikusten dituen kamara batetik begiratuta.

Etzi berriz, 22:30eko saioan *Resaca en Las Vegas* filma ikusteko aukera izango da. Tood Phillips da zuzendaria eta hiru lagunek Las Vegasera egiten duten bidaia kon-



Ponyo filma ikusiko dute gaur. HITZA

tatzen du. Horieta bat ezkontzera doa, eta ezkondu aurreko agurra bertan ematea erabakitzen dute.

Zinemaldia Tolosara ere iritsi da

Gaur Donostiako Zinemaldiko filmeetako bat Tolosan eskainiko dute. Hayao Miyazaki zuzendari japoniarren *Ponyo* hain zuten ere. Tolosako Laskorain, Hirukide eta Samaniegoko ikastetxeeko ikasleek izango dute estreinaldiaz gozatzeko aukera, euskaraz gainera.

Bertan kontaktzen du, nola haur batek arrain bat erreskatatzen duen, eta nola bere lagun egiten den.

Beti alai
jatekoa

Garaian garaiko janariak
Arraikietan berezia

© 943 67 33 81 / 943 67 19 20 • Erremerterri kalea, 16 • 20400 TOLOSA

Laburrak

Uzturre taldearen bilera hilaren 29an izango da

GIZARTEA • Alkoholiko Anonimoen Uzturre taldea bilera irekiekin hasiko da berriro. Hauek hilero, azken astearteetan izango dira, Corpus Christi parrokiko lokaletan, 20:00etan. Beraz, hurrengo bilera, hilaren 29an izango da. Alkoholaren eta bere ondorioen inguruan hitz egitea izango da bilera hauen helburua. Bilerara alkoholak kalte-triukoak eta euren senideak gonbidatzen dituzte.

Txixi Orbegozoren tailerren izen-ematea

KULTURA • Txixi Orbegozoren arte plastikoen tailerra urrian hasiko da ikastaroekin. Bertan, gaztetxoentzako nahiz helduentzako marrazketa eta pintura hastapeneko eskolak ematen dituzte. Gazte eta helduentzako eskolak ostegunetan izango dira, eta haurrentzakoak, berriz, astelehenetan. Txixi Orbegozo eta Helga Massetani dira irakasleak. Informazio gehiagorako eta izena emateko 669 69 43 21 edota 617 23 80 62 telefono zenbakietara dei daitezke. Tolosako Igaralde kaleko lehenengo zenbakiko bigarren solairuan emango dituzte eskolak.

Bi erakusketak ikusgai, Aranburu jauregian

KULTURA • Bi erakusketak daude ikusgai Aranburu jauregian. Bateatik, Iñigo Altolagirreren pintura erakusketak dago, eta bestetik, *Biblioteca en guerra* erakusketak.

Tolargi-Tolosagasaren lehiaketan parte-hartzea

ASIA • Tolargi-Tolosagasak antolatzen duen argazki lehiaketarako argazkiak aurkezteko epea hilaren 30ean amaitzen da. Aurten, gaia *euskara eta gure kultura* da. Irabazleak urtebetez doan izango du gasa eta argia. Tolosagasaren egoitzan edo Tolargin aurkeztu daitezke argazkiak.

Topic zentroan bisita gidatuak egiteko aukera

KULTURA • Bisita gidatuak egingo dituzte Topic-en hilaren 26an eta urriaren 3an eta 10ean, 12:00etatik 18:00etara. Izen-ematea, Tolosako Ekinbide Etxean (943 65 04 14, 09:00etatik 13:00etara eta 16:00etatik 19:00etara) edo topic@cittolosa.com-en.

Ramon Labaienen hitzaldia gaur, Kultur Etxean

KULTURA • Ramon Labaienen hitzaldia izango da gaur, Kultur Etxean, 20:00etan. Napoleoni buruz izango da, eta bere berunezko soldadutza bilduma erakutsiko du, *Baioneta* aldizkariaren 3. zenbakian aurkezpenean.

Tango ikuskizuna izango da etzi, Berdura plazan

Kultura • Agata elkarteko kideek egingo dute erakustaldia, 18:30etik 20:30era; edonork hartu ahalgo du parte.

ERREDAKZIOA

Tangoaren erakustaldiaz gozatze-ko aukera izango da etzi kalean. Hain zuzen ere, Agata tango argentinarraren lagunen Gipuzkoako elkarteko kideak ariko dira dantzatzan, 18:30etik 20:30era, Berdura plazan.

20 bikote inguru ariko dira dantzatzan bertan. Baina, horiez gain, beste edonork ere dantzatu ahalgo du, hain zuzen ere horixe baita euren nahia. «Jendea animatu nahi dugu gure erakustaldia ikustera

gerturatzerara, eta bide batez, dantzatzera ere gonbidatzen ditugu; hori bai, badakigu ez dela erraza tangoa dantzatzea, eta horregatik ulertzen dugu ez ausartzea, baina

Larraulen igaroko dute asteburua elkarteko kideek; 20 bikote inguru ariko dira dantzatzan

guztiei luzatu nahi diegu dantzarako gonbita», azaltzen du Alberto Cifuentes elkarteko lehendakariak.

Ez da Tolosako kaleetan dantzatzeko lehendabiziko aldia. Azken 9 urteetan elkarteko kideak Larraulen elkartu ohi dira asteburu bat pasatzera, eta bertatik Tolosara jeitsi emanaldia eskaintzera.

Igande goizetan egin izan dute hori, baina aurten larunbat arratsaldera aldatzea erabaki dute, «jende gehiago izaten baita kalean».

Duela 14 urte sortu zen Agata elkartea. 130 kide inguruk osatzen dute, tango irakasleak eta baita afizionatuak ere. 50 urtekoa izan da orain arte adinaren batez beste-koa, baina Cifuentesek azaltzen duen bezala, «azken aldian jende gazte gehiago ari da animatzen. Urtean izaten dituzten jardueren artean, Zarautz, Irun edota Donostiako festetan parte hartzea dago, besteak beste, eta Donostiako tango jaialdian ere parte hartzen dute. Igande arratsaldetan elkartzen dira Donostiako egoitzan, eta tangoaz hitz egiteaz gain, dantzatu ere egiten dute han.



Agata elkarteko kideak maiz irteten dira kalera tangoa dantzatzera. HITZA

Bialean proba moduan ez jartzea aparkalekurik erabaki du Udalak

Mugikortasuna • Zamalanetarako sistema kontsolidatu eta oinezkoen gunea hobetzeko neurriak hartuko dituzte.

ERREDAKZIOA

Tolosako Mugikortasun Astearen baitan, J. A. Irazusta kalean (bialean) gaurtikigandera bitarte ibilgailuentzako bi norabide eta aparkalekua mantendu nahi zuten proba moduan, baina azkenean bertan behera utzi ditu aldaketa hauek Tolosako Udalak, «arazoak sor zitzakeelako».

Azaldu dutenaren arabera, atzo goizean 2,5 metroko bi errei edo karril eta 2 metro zabalerako apar-

kalekua markatzen hasi ziren bialean. Aurretik, bialak zuen zabaleran neurtu zuten eta «planoan posible zela ikusi genuenez proposatu zuten proba egitea».

Hala, 09:00ak zirenean, hau da, ordu puntan, proba egin zuten, eta konturatu ziren karril batek gutxienez 3 metro zabal izan behar duela ibilgailu handiak pasatzeko, kamioiak eta autobusak hain zuzen. «Kontuan izanda ibilgailu handiak ez direla oso eroso pasako eta sortu daitezkeen arazoengatik, probabertan behera uztea erabaki dugun».

Zamalanak berrantolatuko

Bestalde, Mugikortasun Astea aprobetxatuz, Udaltzaingoko eta Mugikortasun Departamentuak Alde Zaharreko zamalanak be-

rrantolatzekeo datu bilketa eta jarraipena egitea erabaki dute.

Bateatik, Alde Zaharreko inguruan dauden zamalanetarako guzuzak zainduko dituzte, eta gunea jarriko dute, baita ere, Gorrii plazan. Hala, banaketako ibilgailuei galaraziko zaie dendetako ateraino iristea, merkantzien ezaugarrien arabera beharrezkoa duten banatzaileei izan ezik, adibidez haragia banatzen dutenei. Bestetik, bizilagunek eta garajeetako erabiltzaileek orain arte ezarrita dagoen sistema erabiliko dute.

Neurri hauek guztiak pixkanaka jarriko dituztela martxan azaldu dute, «zamalanetarako sistema kontsolidatzeko asmoz eta Alde Zaharreko oinezkoen gunea hobetzeko».

Falange y Tradicionen «erabateko inpunitatea» salatu dute

Politika • Euskal Autonomia Erkidegoko eta Nafarroako Gobernuak gertaeren aurrean isilik geratu direla esan dute.

ERREDAKZIOA

Falange y Tradicion elkarrekin bere gain hartu ditu Euskal Herrian 2008ko urritik hona egindako aurrak, eta horien artean aurrak izan da abuztuaren 27an Tolosan Joxean Lasa eta Joxi Zabalen hilobietan egin zuten pintaketa. Honen aurrean, Genozidio Frankistaren Biktimak biltzen dituen Lau Haizetara Gogoan plattformak Falange y Tradicion izenaren atzean gordetzen diren «erabateko inpunitatea» eta Euskal Autonomia Erkidegoko eta Nafarroako Gobernua horren guztiaren aurrean isilik geratu izana salatu du.

Azaldu dutenez, haien eraso terroristen zerrenda luzatzen den bitartean, «UPN eta PSOEko arduradun politzialek (estatalak eta autonomikoak) ez dute ezer egin beraien erasoaldia geratzeko. Ezta epaileek ere». Halaber, Lau Haizetara Gogoan plattformari kezka-garria iruditzen zaio ere «Patxi Lopezen gobernutik inolako erantzunik ez egotea Falange y Tradicion delakonek, Gobierno Regional Vascongado berria deitzen dutenari emandako ongi etorriz».

Plattformaren esanetan, «garai batean ultra-eskuindarrak deitzen zirenak, orain ultra-konstituzionalistak bilakatu dira, eta Patxi Lopez jaunak, lehendakaritzatik, ez du ikusten beharrik beraiegatik bereizteko. Ez da bestela onargarria, esan dituztenak esanda, isilik egotea».

Bestalde, gertaera berri horien aurrean, «komunikabide gehienek mantendutako isiltasuna» ere salatu nahi izan dute plattformatik.

Hala, honen guztiaren aurrean, Lau Haizetara Gogoan plattformatik, «eraso eta mehatxuen gainetik», egia, justizia, erreparazioa eta berriro ez gertatzeko bermeak lortzeko «lehen baino inard handiagoarekin» lanean jarraituko dutela adierazi dute.

Iragarki laburrak

SALGAI

■ **Su egurra.** Su egurra salgai. 20, 30 eta 40 zentimetroz moz-tua. Etxera eramaten dugu. Harremanetarako telefono zenbakia: 615 75 57 62



Duela bi urte egin zen Euskal Jaian postuetan jarri ziren hainbat barazki ikus daitezke irudian; aurten ere izango dira. A. IMAZ

Bi urteren ostean etzi Euskal Jaia ospatuko dute herriko plazan

Ikaztegieta » Goizeko 11:00etatik arratsaldera bitarte, zer ikusia, erosia eta dastatua izango da herriko plazan.

ERREDAKZIOA

Ikaztegiatiko Udalak, lehen aldiz, duela bi urte antolatu zuen Euskal Jaia. Herriarregandik jasotako harrera ikusita, bigarren urtez antolatzea erabaki dute Kultura Batzordekoek. Larunbat honetan, goizeko 11:00etatik aurrera izango da euskal jaia.

Eguraldi hobe izateko esperantzarekin, antolatzailerik, hila bete aurreratu dute oraingoan. Aste luzeetako lanaren ostean, ate joka dute baserriar arropak jantzi eta plazara gerturatzeneko eguna.

Euskal jaia

Jaiari hasiera goizeko hamaiketan emango diote txalaparta doinuekin eta azokaren irekiera izango da. Bertan, postu ezberdinak ikusteko aukera izango da. Alde bate-



Talo artean txistorra jan ahal izateko frijitzen. A. IMAZ

tik, herriko baserrietatik jaitziko produktuak egongo dira. Herriko produktu ekologikoez edota iberikoek ere beste postu bana izango dute. Baita, mondeju eta erroskila egin berriak ere. Ikaztegiatarrek ez diren Errezilgo emakumeek eta Aldaba-Zaharrekoek ere beraien baserriko produktuak ekarriko dituzte salmentarako.

Jakiak alde batera utziz, baserriar ezberdinek, animalia eta hegazti

batzuk ere plazara eramango dituzte: zaldia, astoa, behorra, akerra, ahateak, usoa, untxiak, antzara...

Gainera, beste postu batzuetan, landareekin eginiko ukendu ezberdinak, bonsaiak, zumitzak edota lore lehorrak egongo dira. Bestalde, Marcillatik etorriko da eskuz egindako lepokoak, erretiluak eta koadroak izango dituen postu bat. Urriaren 4an ospatuko den

Kilometroetako materialaren postu bat ere egongo da, inork zerbaite erosi nahiko balu.

Taloea eta sagardoa

Egunean zehar jan edanerako aukera izango da. Herriar talde bat, taloak jotzen arituko da eta bi euroren truke, txokolata, gazta, txistorra edota hirugarrearekin betetako taloak jateko aukera egongo da. Edateko berriz, sagardo kupela egongo da, beraz, tripa betez kupeletik txotx egongo dute.

Bestalde, DBHko ikasleek, ikas bidaiara joateko behar duten dirua ateratzea dute helburu eta horretarako, kafea eta postrea eskainiko dute. Beraz, tripa ongi betetzeko aukera nahikoa izango da.

Beira lantzea eta lihoa

Herriko plazan bertan, elizaren aurkupetan, beira lantzen eta lihoa egiten ikusteko aukera izango da goizean zehar.

Zaldibiatik, Pedro Arruabarrena eta Karmele Aduriz etorriko dira. Hauek, belarretik lihoa nola egiten duten erakutsiko dute.

» EGITARAUA

Hasiera 11:00etan

- **Baserriko produktuak.** Erbiñe, Oilakendegi eta Arizti baserrietakoak.
- **Produktu ekologikoak.** Jose Ramon Larrea.
- **Produktu iberikoak.** Cojasa.
- **Mondeju eta erroskilak.** Martina Garmendia.
- **Ukenduak.** Lourdes Garmendia eta Marijose Irazusta.
- **Bonsaiak.** Aitor Olando.
- **Zumitza eta Lore Lehorrak.** Mikela Etxeberria.
- **Beira lantzea.** Argia Badago (Irura).
- **Lihoaren lanketa, belarretik ohialera.** Pedro Arruabarrena eta Karmele Aduriz (Zaldibia).
- **Bertsolariak.** Bixente Gorostidi, Unai Muñoa eta Ander Lizarralde.
- **Herri Kirolak.** Sakanako emakume tiraliariak eta Iñaki eta Iñaxio Perurena harriarrosotzaileen erakustaldia.
- **Eta.** Txalaparta, trikitilariak, pererratzaileak, idi pareak, dantzariak, animaliak, taloak, sagardoa kupeletik...

Beira lantzea, Igor Obeso donostiarra joango da, berau, Euskal Herrian beira airean puzten duen bakarra da eta bere pieza bakoitza ere bakarra da.

Gainera, plaza ingurutik idi pare ibiliko da. Perrratzaileak ere, 12:00ak aldera bere saioa egingo du, alde batetik zaldia perratuko du eta bestetik, astoari azkazalak txukunduko dizkio. Jarraian, bikote batek Arratia dantzatuko du. Trikitilariak eta bertsolariak ere plazan izango dira giroa alaitzen.

Herri kirolak

Jaiari amaiera emateko, herri kirol erakustaldia izango da. Lehenik eta behin, Sakanako emakumeak sokatiran lehiatuko dira eta bertaratutakoan artean inor, emakume hauen aurka ausartuko balitz, sakanarrak prest daude lehiari ekiten.

Eta bukaera, Iñaki eta Iñaxio Perurena aita-semeen arteko erakustaldiarekin emango zaio.

Kultura batzordetik, herriarrei eta bertaratzeoak direnei, baserriar arropa jantzita gerturatzen deia luzatzen diete. Ea eguraldiak laguntzen duen eta festa egun polita eta alai egiteko moduan diren ikaztegiatarrek.



HITZAK harpidedun batentzat **sarrera parea** du



LAGUN ARO GBC
Caja Laboral Basconia
saskibaloj partida

Noiz:
Irailak 29, Asteartea • 20:00etan
Non:
Donostiako Arena 2016

sarrerak eskuratzeko deitu **943-65 56 95** telefono zenbakira



sarrerak



Nesken Pilota Eskolaren ikasturtea, hastear

Irura » 10-16 urte bitarteko neskei zuzenduta dago; izena irailaren 28tik urriaren 2ra arte eman ahalko dute interesatuek.

ERREDAKZIOA

Gipuzkoako Euskal Pilota Federazioak, Irurako Udalarekin elkarlanean, martxan jarriko du berriro ere Irurako Nesken Pilota Eskola, behin udako oporraldia eta bihar bertan hasiko diren San Migel jaia igarotzeko ondoren.

Eskola 10-16 urte bitarteko neskei zuzenduta dago, eta bertan parte hartzea animatzen diren neskek batez ere paletan ariko dira. Taz, esaterako, zortzi neska aritu ziren eta «benetan gustura» amaitu zuten ikasturtea, Pilota Federazioak jakitera eman bezala. 2004tik abian den Emakumea Pilotari proiektuaren baitan kokatzen da jarduerak hau ere, eskola kirolaren atalean, hain zuzen ere.

Izena emateko interesa dute-

zentzat hiru bide ireki dituzte. Batetik, ikastetxean bertan egin dezaketa, eskuorria entregatuta, Gipuzkoako Euskal Pilota Federazioan ere egin dezakete (943471463) edota 628904156 telefono zenbakian. Horretarako epea irailaren 28tik urriaren 2ra bitarte izango da. Ikastaroaren prezioa 90 eurokoa da (irurarrek gutxiago).

Hala ere, informazio gehiago jaso nahi izanez gero Gipuzkoako Euskal Pilota Federazioa dei daiteke. Emakumea pilotari proiektuaz zerbait gehiago jakin nahi duenak, berriaz, eskura du informazio gehiago blog honetan: <http://www.blogak.com/emakumeapilotari>.

Ikasturtearen nondik norakoak
Behin izena emanda ikasturteari urriaren 7an ekingo diote, asteazkenarekin. Orduetgia ere zehaztu dute federaziotik 18:45etik 20:00etara izango bait, Irurako udal pilotalekuan. Ikasturtea, berriaz, ekainera arte luzatuko da.

Bizi-Nahiren jaiak gaurtik hilaren 27ra

ERREDAKZIOA

Ibarrako Bizi-Nahi pentsiodunen eta jubilatuen elkartearen jaiak hasiko dira gaur bertan eta hilaren 27ra arte luzatuko dira.

» EGITARAUA

Gaur, osteguna

- **12:00.** Jaiei ongietorria emateko ikurrina altxatzea eta txupinazoa egingo dute elkartearen aurrean.
- **16:00.** Mus, tute, eskoba eta punttu txapelketa azkarra.
- **20:00.** Bazkideentzako luntxa.

Bihar, ostirala

- **09:30.** Ibilaldi neurtua animatzen diren bazkideentzat. Amaitzerakoan hamaiketako banatuko dute.
- **20:00.** Zuzendaritza batzordeko kideek prestatutako eta zerbitzatutako afaria elkartearen.
- **Afalostean** dantzaldia.

Bazkideen bazkariarekin batera beste hainbat ekitaldi ere egingo dituzte, txapelketak, esaterako. Adinak ez du mugarik jarriko jaietan...

Etzi, larunbata

- **11:30.** Bikote mistoez osaturiko Toka Txapelketa. Ondoren, bertaratutako guztien artean Ibarrako tomate eta piparrak banatuko dituzte.
- **16:30-19:30.** Bingoa klubeko aretoan (sari bereziak banatuko dituzte).

Hilak 27, igandea

- **09:00.** Diana.
- **11:00.** Hildako bazkide guztien aldeko meza, San Bartome elizan.
- **14:00.** Bazkaria Belabietan.
- **19:30.** Jaien amaierako txupinazoa.



Urtero bezala, aurten ere izango da toka txapelketa larunbatean. R. CALVO

Laburrak

Afrikar dantza ikastaroa antolatuko dute Asvinenean

ADUNA » Aurten ere afrikar dantza ikastaroa antolatuko dute Asvinenean. Urriaren 7an hasiko da eta asteazkenetan 19:30etik 21:00etara izango da. Lehen hiruhilabetearen kuota 135 eurokoa izango da. Perkusioa zuzenean joko da. Dagoeneko lehenengo taldea osatua dago eta beste talde bat ateratzeko aukera dago. Interesatuek deitu 653 73 27 09 zenbakira edo ainhoa.aagi@gmail.com helbide elektronikora.

Lodosara bidaia egingo dute Alkartasunakoek

ANOETA » Lodosara bidaia egingo dute Alkartasuna biltokiakoek urriaren 7an. 08:30ean abiatuko dira Anoretako plazatik. Pikillo piperren enpresa bat, bi upategi eta Zagra herriko azoka bisitatuko dituzte. Bazkaria Hostal Venecian egingo dute. Bazkideek 24 euro ordaindu beharko dituzte eta bazkide ez direnek 27 euro. Izena biltokian bertan eman behar da, 18:00etatik 20:00etara bitarte.

Liburutegia irekiko dute datorren astelehenean

BIDEGOIAN » Udako itxialdiaren ostean, Bidegoiango liburutegiak atek irekiko ditu berriro, datorren astelehenean aurrera. Orduetgia betikoa izango da, astelehen eta asteazkenetan, 16:30etik 19:00etara, hain zuzen ere. Bestalde, Berrobiko liburutegia ere herenegun ireki zuten jendearantz. Bertako orduetgia astearte eta ostegunetan izango da, 17:00etatik 19:30era.

Igandeko bazkarirako txartelak salgai

ERREDAKZIOA

Ibarran igandean egingo duten azoka bereziko bazkarirako txartelak eskuragarri jarri dituzte Sendi Ekintza eta Zubiaurre tabernetan.

Gaur da hauek erosteko azken eguna, 20 euroren truke; menua, berriaz, hau da: potxak, bakailaoa piperrekin, pantxineta txokolaterekin, kafea eta edariak.




harpidedun izateak badu saria

- ① 2 lagunentzako otordua



Errosario plaza • ORENDAIN
tel: 943 65 30 48



- ③ 2 sarrera eta argazki liburu bat Mendukilo kobazulorako



Nafarroa iparraldean, Plazakoako Partzuergo Turistikoaren eremuetan eta Aralariko mendizerraren magalean. Zehazkiago, Larraungo bailaran, Astizko kontzejaren herri barrutetan.
Astiz • 948 396 095 • mendukilo@mendukilo.com • www.mendukilo.com

- ② Zerbitzu oso bat Honekin ileapaindegian



Santa Maria Plaza, 1 • TOLOSA
tel: 943 67 22 44

- ④ 3 diskoz osaturiko sorta baga-biga disketearen eskutik



Parte hartzeko deitu edo idatzi: 902-82 02 40 / txokoa@hitza.info [harpidedunen kodea, izena, herria, eta zine eskaintzetan parte hartu nahi duzun garbi adierariz] Aste honetako astearte, asteazken eta ostegunetan, 09:00etatik 17:00etara. Saridunak larunbatean argitaratuko ditugu.

harpidedunen
TXOKOA hitza

Monteskueko etorkizuna diseinatzen bizilagunen batzordea eratu dute

Tolosa » Bepiztu Egitasmoari esker auzotarrek Ekintza Planaren lehen zirriborroa eztabaidatu dute.

REBEKA CALVO

Monteskueko bizilagunek, Bepiztu Egitasmoaren baitan, auzoko Ekintza Planaren lehen zirriborroaren berri izan zuten astearte iluntzean. Guztira 15 bat lagun bildu ziren Tolosako udaletxeako pleno aretoan eta bertan, auzotarrek somatutako hutsuneen inguruan hitz egin zuten.

Tolosako Landa Auzoetako Dinamizatzailearen, Arrate Iturbere, hitzetan «gure proposamena auzotarren artean lantaldeak sortzea da, hartara bizilagunek salutatuko zerbitzu gabeziei irtenbidea eman ahal izateko». Izan ere, Bepiztu Egitasmoaren baitan hainbat elkarrizketa egin dituzte orain arte bizilagunekin eta bilera hauetan esandakoekin egin dute Ekintza Plana. «Oraingo proposamen bat besterik ez da, zirriborroa. Urriaren 30era arte itxaron behar dugu, orduarte auzotarren ekarpenak jasoko ditugu eta orduan egingo dugu behin betiko Ekintza Plana», argitu du Iturbek.

Auzoaren gabeziei irtenbidea emateko lehenik eta behin auzotarren inplikazioa bultzatu nahi zutela dio dinamizatzaileak eta horregatik euren apustua batzordeak sortzea izan da: «Jendearen parte-hartzea bultzatu nahi dugu eta horretarako batzordeak eratu nahi genituen. Bileraren ostean Monteskuen bost bat lagunek batzordea eratzea erabaki zuten».

Irigarritasun arazoak, nagusi
Auzotarren iritziz Monteskuen irigarritasun arazoak dituzte. Auzora igotzeko bi bide daude gaur egun, Tolosako San Frantzisko pasealekuko atzealdetik (Soldadu kalea) edota San Esteban auzotik gora abiatuz. Bi errepide hauek lo-



Bizilegunek irigarritasun arazoak dituztela diote; irudian 2004. urtean tren gaineko zubia berritzeko egindako lanak ikus daitezke. J. SAIZAR

zten dituen beste bide bat ere badago, gurutz bidea Berrano base-riaren ondoan dagoelarik. Azken hau, ordea, bertako bost auzotarren artean egindakoa da. Bidearen egoera ez da oso ona, zulo handiak eta putzuak ditu, eta orain arte auzotarrek konpondu dute. Tolosako obren ondorioz Moteskun trafikoko gehiago nabaritzen dutela ere nabarmendu dute bizilagunek.

Honekin guztiarekin batera, auzotik barrena igarotzen diren errepideak nahiko egoera kaskarrean daude; estuak dira, zuloz betetakoa... Auzotarrek, ondorioz, Floreagatik doan errepidearen konponketa eskatu izan dutela diote.

Gune arrisksuena, dena den, Soldadu kaleatik doan herri bidea dela nabarmendu dute; estua izateaz gain, bertako behaldekotean bizi diren bizilagunek errepidearen albo batean uzten dutelako autoa, bidea gehiago estutzen.

Bestetik, bizilegunek garraio publiko gabezia nabarmendu dute. Auzotarrek autoa behar dute, nahitaez, Monteskuetik mugitzeko, izan ere, ez dute garraio publiko zerbitzurik eta honek auzotar batzuk mugatzen dituela diote, batzuk autorik ez duelako eta beste batzuk gida baimenik ere ez dutelako.

Bestelako hutsuneak ere nabari dituzte, butanoaren hornidurarena, esate baterako. Baseri eta etxe gehienetan gasoila edo butanoa erabiltzen dutela argitu dute. Gasoilarik ez omen dute arazorik, baina bai butano hornidurarekin.

» PLAN ESTRATEGIKOA

Ahulezia nagusiak

- Plaza gune eza.
- Tolosatik oso gertu dago.
- Biztanle gutxi dira.
- Baserrietara igotzeko bideak egoera kaskarrean daude.
- Auzoko azpiegiturak ez daude oso egoera onean -saneamendu sare gabezia-.
- Baseri gutxi bizi da nekazaritza-ri esker.
- Ez dute zerbitzu eskaintzarik; ostatuta, ludoteka, landaetxea...
- Herri ondasun eza dute: lokalak, etxebizitzak, udal lurrak...
- Umeez ez dute garraiorik eskolatar joateko.

- Garraio publiko eza.
- Auzotarren antolakuntza eza.
- Auzoan ekintzak antolatzeko interes eza.
- Urmeentzako jolastoki edo pilotaleku eza.

Indargune nagusiak

- Auzo identitatea dute.
- Baliabide naturalak dituzte.
- Baserriarrek ingurunea zaintzeko sentsibilitatea dute.
- Auzoak dituen guneak: Tolosako Alde Zaharreko gertutasuna.
- Nekazaritza mantentzen duten baserriek kalitatezko produktuak eskaintzen dituzte.



laz jubilatutako askok hartu zuten parte ekitaldi desberdinetan. HITZA

Jubilatu Eguna ospatuko dute igande honetan

Leaburu-Txarama » Jai egun berezia izango dute herriko jubilatuek igandean; bazkaria Zazpi Bide elkartearen izango da.

ERREDAKZIOA

Aspaldiko urteetan bezala, aurten goan ere Leaburu-Txaramako jubilatuek euren eguna ospatuko dute igande honetan.

Bazkaria Zazpi Bide elkartearen egingo dute eta hauxe da menua: arrain-pastela, otarrainxkak, mariskoa-krema, legatza, azpizuna pizarrekin eta postrea, kafea, kopa zain purua.

» EGITARAUA

Hilak 27, igandea

■ **10:30.** Autobusa Txaramatik abiatuko da (10:30ean kartero ondoko geltokian, 10:35ean Baratzondon eta 10:40ean paper fabrikako pisu ondoan).

■ **11:00.** Meza nagusia.

■ **11:45.** Udalerriko dantzarien emanaldia.

■ **13:00.** Toka Txapelketa.

■ **14:00.** Bazkaria Zazpi Bide elkartearen.

■ **Bazkalondan.** Txireneko Ogiyik *karri etzun semia* umorezko bakarriketa eta trikitaliak izango dira. Opariak ere banatuko dituzte.

Laburrak

Urriaren 1ean hasiko dira ikastaroak kiroldegian

IBARRA » Ibarra kiroldegiko Aerobic (astearte-ostegun), Spinning (astelehen-asteazken eta astearte-ostegun), Yoga (astelehen-asteazken eta astearte-ostegun), Pilates (astearte-ostegun), Tai-Chi (astelehen-asteazken eta 3. Adineko (astearte-ostegun) ikastaroak urriaren 1ean hasiko dira.

Umorezko bakarriketa bihar, Urepelen

BERASTEGI » Berastegiko Udalak iragarri duenez, umorezko bakarriketa izango da bihar 22:00etan Urepelen elkartearen. Bakarriketa Txirene taldearen *Ogiyik karri etzun semia* da eta egungo ama baten eta unibertsitatean daukan semearen arteko harremana du ardatz. Udalak herritar oro gonbidatzen du bakarriketara.

Tolosaldeko eta Leitzaldeko HITZAn jarri eta Gipuzkoako beste 4 Hitzetan DOAN agertuko da

HITZak Gipuzkoan 120.000 irakurle

hilberriak
urteurrenak
eskertzak

Ibarra eta Lizarra 'Euskal Herria Egunean' elkar senidetuko dira

Gizartea » Urriaren 10ean ospatuko da senidetze eguna Ibarren. Bi herrietako hainbat eragilek bultzatu dute ekimena.

ERREDAKZIOA

Lizarra eta Ibarra herrien arteko senidetzea burutuko da azken herri honetan urriaren 10ean. Ekimenak *Euskal Herria Eguna* izena edukiko duela jakinarazi zuten atzo, Ibarroko hainbat taldetako kideek.

Lizarra eta Ibarren arteko anaitasun lokarria Bai Euskal Herriari herri ekimenak bultzatu du bi helburu nagusirekin: «Bata, euskal herritarrek garelako aldarrikatzeko etabeste, bi probintzieta herri honen senidetzea burutzea, erlazio aberasgarria izango dela koan baikaude».

Taldearen arteko harremana

Ibarren eta Lizarren arteko lehen hartu-emanen ostean, bi herrietako hainbat elkarterengana



Ibarroko hainbat elkarteek 'Euskal Herria Eguna' aurkeztu zuten atzo herriko plazan. A. IMAZ

zuzendu ziren Bai Euskal Herria herri ekimeneko kideak. Horrela,

«hemengo talde eta eragile ezberdinei, Lizarrako taldeekin senidetzeko proposamena luzatu diegu, urte guztian elkarrekin ekintza ezberdinak burutu ditzaten. Egia esan, erantzuna oso positiboa izan

da eta ilusioa eta harremanetarako gogoia piztu du».

Zerrenda luze horretan bi herrietako Ikastolak, dantza taldeak, Musika Eskolak, Gaztetxeak eta Jai Batzordeak aurkitzen dira besteak beste. Baita herrietako hainbat kultur eta kirol elkarte ere:

Ikurrina balkoietan

Euskal Herria Egunean ibarrei ikurrina balkoian jartzea eskatu diete ekimenaren bultzatzaileek, bide batez, jaietan jarri zutenei eskerrak eman zizkieten. Orokorrean, herritarrei Euskal Herria Egunean parte hartzeko eskatu zieten

eta euren ekarpenak, proposamenak edo ideia berriak «interesgarriak eta eskertzekoak» izango direla gaineratu zuten: «Deialdi berezia luzatzen dizuegu, haur, gazte, heldu eta helduagoei, egun honetan parte hartzeko, eta jakinarazi herri bazkariko txartelak Zubiaurre, Atari, Sendi Ekintza eta Danon Txokoa tabernetan daude-lasalgai».

» EGITARAUA

Urriak 10, larunbata

- **10:00etan.** Lizarrakoei ongotria mondeju eta pipar janaz.
- **10:30ean.** Urne jokoak.
- **11:00etan.** Kalejira dultzainero, trikitilari eta bertsoleak lagundurik.
- **13:30ean.** Senidetze ekitaldia plazan.
- **14:00etan.** Kantu bazkaria.
- **16:00etan.** Gaztelu puzgarria haurrentzat.
- **16:30ean.** Mus Txapelketa.
- **18:00etan.** Lizarra eta Ibarra herrien arteko herri jokoak.
- **19:30ean.** Senidetzearen murala aurkeztuko da.
- **21:00etan.** Txotx eta ogitartekoa Sendi Ekintzan.
- **21:30ean.** Jai Gaztetxean: Zaplasteko, Feos pero majos eta Un-sain anaiak taldeekin.
- **Ondoren.** Herriko Djak.



Urte hasieran martxan jarritako helduen Bertso Eskolak jarraipena edukiko du. A. IMAZ

Leitzako Bertso Eskolaren lehen bilera izango da gaur

ERREDAKZIOA

Leitzako Bertso Eskolaren ikasturte berriari gaur emango diote hasiera.

Urtarrilean bertan, dozena batetako taldea osatu zen «bertsozale batzuen eskariz» eta ekainera arte astero bildu izan ziren Aurrera elkartean.

Ikasturte berrian ere jarraipena eman nahiz zaien Bertso Eskolari eta lehen bilera osteguneko izanen da Aurrera elkartean bertan, 19:30ean.

Bertsozale Elkarteari bat

Lehenik, asteko zein egunetan bilduko diren erabakiko dute gaur Aurreran.

Aurten Txapelketa Nagusiaren saio bat ospatuko da Leitzan eta hori ere hizpide izanen da. «Baina batez ere zer egingen den urtean zehar erabakiko dugu: bat-batean trebatu, doinutegia zabaldu, bertso idatziak kantatu eta sortu... Aukera zabalago dago eta interes guztiak asetzen saiatuko da».

Nafarroako Bertsozale Elkar-

tea, bertsozaleen sendotzeko asmoz, eskualdeetan helduen bertso eskolak sortzen edo sortzen laguntzen ari da joan den aspaldian eta Leitzakoa horren emaitza da. «Bertsozaleak bildu eta tokian-tokiko bertso-eragile izatea da azken helburua: bertsoan egin, saioak antolatu, bertso saioak entzun eta komentatu... Bortzirietan eta Iruñean daude bertso eskola indartsuak eta beste zenbait hasiberri Leitzan, Lekunberrian, Sakanan eta Baztanen».

Jon Rekondok Nafarroako II. Mailako finala jokatu du

Leitza » Rekondok aizkora finala hilaren 27an, igandean, jokatu du Uharte-Iruñean 17:30etik aurrera.

ERREDAKZIOA

Uharte-Iruñean Nafarroako II. Mailako Aizkolari Txapelketaren finala jokatu da hilaren 27an, igandean. Aizkora jaialdia 17:30ean hasiko da eta bertan bost aizkolari ariko dira lehian. Horien artean leitzar bat egongo da, Jon Rekondo gaztea hain zuzen ere.

Berarekin batera ondorengo aizkolariak lehiatuko dira: Daniel Vicente (Otsagi), Oihan Larretxea (Bera), Xabier Mindegia (Beintza Labaien) eta Jesus Etxeberria (Beintza Labaien).

Azken honen kasua, Etxeberria-rena, berezia izanen da, izan ere, osasun arazoak direla eta Patxi Mindegia ez du finalean parte hartuko. Bere ordean, kanporaketan seigarren sailkaturiko aizkolariak hartuko du finalean parte, hau da, Jesus Etxeberriak.

Ebaki beharreko enborrak bika-naerdiko, bi 60 ontzako eta oinbiko bat izango dira.

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA SAILAK DIRUZ LAGUNDUTAKO HEDABIDEA



Argitaratzailea: Tolosa Herria Hedabideak S.L.
Lege Gordailua: SS-0398-03
Zuzendaria: Noelia Lataburu
Egoitza nagusia: Araba Etorbidea 5, atzea, Tolosa.
Telefonoa: 943 65 56 95. **Faxa:** 943 65 00 18
Leitza: Herriko plaza, 1. 687 410 118
E-posta: tolosaldean@tolosaldeko-hitza.info.
Webgunea: www.tolosaldeko-hitza.info

Zuzendariordea: Iñigo Terradillos. **Kudeatzailea:** Maider Garaikoetxea.
Publizitatea: 661 678 818 tolosa@iragarri.net.
Tolosa: 687 410 082-687 410 033. tolosa@tolosaldeko-hitza.info.
Villabona: 687 410 022. villabona-aiztondo@tolosaldeko-hitza.info.
Anoeta: 687 410 022. anoeta@tolosaldeko-hitza.info.
Ibarra: 687 410 032. ibarra@tolosaldeko-hitza.info.
Alegialdea: 687 410 034. alegialdea@tolosaldeko-hitza.info.
Leizaldea: 687 410 118. leizaldea@tolosaldeko-hitza.info.

Tolosa Herria Hedabideak S.L.ko kideak:

BERTAKO HEDABIDEAK



eta Tolosaldeko eta Leizaldeko beste 77 eragile

Hitza-k Bai Euskarari



'Hitza' diruz laguntzen duten erakundeak. Udalak: Aduna, Alegia, Alkiza, Altzo, Ametzeta, Anoeta, Areso, Baliarrain, Belauntza, Berastegi, Elduain, Gaztelu, Hernialde, Ibarra, Ikaztegieta, Irura, Leaburu, Leitza, Tolosa, Villabona, Zizurkil

Gipuzkoako Foru Aldundia

Hitza-ko bezeroen arreta zerbitzua (zalantzak argitzeko, harpidedun egiteko): **902 82 02 01**

A Agenda

Deialdiak

- **Alegia.** Jubilatuko elkartek hilaren 23rako Arabara antolatuta du irteera, Laudio, Artziniega, Amurrio eta Gasteiz bisitatuz. Izen-ematea, elkartean 16tik aurrera 11:00etatik 12:00etara 30 eurotan.
- **Bedaio.** Hilaren 27an II. Raid Lasterketa antolatuta dute Bedaion, 25 kilometroko ibilbidea 09:00etan abiatuta. Izen-ematea, 24rako elkartean (www.bedaio.com).
- **Zizurkil.** Hilaren 27an zaldi lasterketa egingo dute, 18:00etan. Bertan 15 zaldunek hartuko dute parte.
- **Tolosa.** Bisita gidatuak Topic-en (Euskal Herria plaza) urriaren 3ko eta 10eko asteburuetan, 12:00etatik 18:00etara. Izen-ematea, TEEn (Tolosako Ekinbide Etxea), 943 65 04 14 (09:00-13:00 eta 16:00-19:00) edota topic@cittolosa.com.

Erakusketa

- **Tolosa.** Iñigo Altolagirreren pintura erakusketa Aranburun.
- » **GUARDIAKO FARMAZIAK**
- **Tolosa.** Bronte, C. Korreo kalea, 20. 943 676013.
 - **Lekunberri.** Azpiroz, M.A. Aralar kalea, 43. 112.

HITZAK ez du bere gain hartzen egunkariaren adierazitako esaneren eta iritzien erantzunkizunik.

Gaur da azken eguna lehiaketara zuen oporraldiko argazkiak bidaltzeko; igandeko alean 8 finalistak argitaratuko ditu HITZAK; zurea izan daiteke horietako bat; ez galdu parte hartzeko azken aukera!

Etenik gabe

PIRINIOAK ● Berriz ere Pirinioetara egin behar dugu bidaia argazkien bitartez. Honakoa Anayeten aterata dago, bertan dagoen aintziraren inguruan. Egileak hau azaldu du: «Ibon de Anayet (Pirinioak) inguruan dago aterata. Egun eder bat pasa genuen familia osoak». JOXE MARI OLANO (IRURA)



GALIZIA ● «Uda honetan Galizi aldean ibili gara eta Portugaleko mugaraino joan eta bertan eguzkia nola ezkututzen zen begira egon ginene». GORKA



VIETNAM ● «Vietnameko iparraldeko herrixka batean, Sapa izenekoa, Hanoioko iskanbilatik aldendu eta lasaitasuna topatu genuen. Hmong etniako jendea bizi da hemen, eta etnia honetako neskatxo bat agertzen da argazki honetan, bere anaiatxoa bizkar gainean daramala».

NAIARA OLAETXEA AMONARRIZ

ALPEAK ● «Abuztuan Alpetan ibili gara. Han Aguille du midi ra igo genuen: 3.842 metrotara. Zubia pasatzen duzu nean ez zara konturatzeko nola dagoen zintzilik». LEIRE ZABALA

